AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

743

127/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Miren Amaia Ruiz Echevarría andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko kargutik kentzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 300/2013 Ebazpenaren bidez (apirilaren 15eko 71. EHAA), Miren Amaia Ruiz Echevarría andrea Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Amaia Ruiz Echevarría andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari mediko kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.